

Urteko borroka soziala



JUAN MARI ARREGI

Euskal pentsionistena, dudarik gabe, 2018. urteko borroka sozial nagusia izan da eta 2019an ere hala jarraituko du izaten, kolektibo jendetsu eta garrantzitsu hori ez da geldituko bere aldarrikapenak lortu arte. Duela hamar hilabete hasi ziren, Hego Euskal Herriko lau hiriburu eta beste herri askotan elkarretaratzeak eta manifestazio masiboak eginez, 2018ko abenduaren 15ekoa kasu.

Zentzuzko zerbait ari dira aldarrikatzen, egingarria, gobernuen partetik borrontate politikorik balego: 350 eta 600 euro arteko miseriazko pentsioen aurrean, gutxienez 1.080 euroko pentsio duina edukitzea denok. Europako Kartak Sozialak hori aitortzen du. Gobernu autonomikoek eta Espainiako gobernu zentralak ezar dezakete pentsio hori, aurrekontu publikoek bere egiten badiutuzte horretarako beharrezkoak diren diru-partidak. Arazoa ez da dirurik ez dagoela, badago, baina gerra negozioetarako, bankuak erreskatatzeko edo monarkia anakroniko bezain alferrikakoa mantentzeko. Aberastasunaren banaketa justua falta zaigu, berdintasunarekiko konpromiso bideragarri bat.

Borroka sozial honek ispiluren aurrean jarri du jende guztia, bereziki gobernuak eta alderdi politikoak. Egungo eta etorkizuneko pentsioak ziurtatu beharrean, pentsio plan pribatuak eta EPSV eta antzeko borondatezko aurreikuspen entitateak sustatzen dituzte, Gizarte Segurantzaren kaltetan eta errenta altuenak dituztenen mesedetan. Ondorioz, emakume eta gizonen arteko desoreka sozialaren arrakala handituz doa.

Konpondu gabeko arazoa: gazteria borroka honen parte bilakatzea. Euren etorkizuneko pentsioak daude gaur egun arriskuan. "Borroka hau irabaziko dugu!", oihukatzen dute pentsionistek. Ez bada atzera pauso bakar bat ere egingen, seguru baietz! ●



DANI BLANCO

Migrazioa erdigunean

TESTUA | MIKEL GARCIA IDIAKEZ @mikelgi

"Migratzaileen urtea izan da 2018, eta bide horretan doa 2019a ere. Baina ez guri lana "kentzera" migratzaile oldea datorrelako, batzuek saldu nahi diguten moduan, Europar migrazio politika gero eta gogorragoak eta diskurtso gero eta xenofoboagoak zabaltzen ari direlako baizik. Eta hauteskunde urtea izanik, gertuago eta ozenago entzungo ditugulakoan nago. Etekin politikoa bilatzen duten mezu interesatuek, dagoeneko ezagunak zaizkigun horiek, lekua egin dute gure gizarte prekarizatuan, legitimitatea lortzen ari dira iritzia publikoan, eta sortzen ari garen harresi mentalak ondoren harresi fisiko bilakatzen dira. Ez alferrik, migrazioa gelditzea helburu bakar duten 1.000 kilometro harresi altxatu ditu urteotan Europak -Berlingo horma ohia halako sei-. Mediterraneoan hiltzen direnak ere ez dira gutxi. Eta sarraskiak berdin jarraituko du, migrazio politika goitik behera aldatu ezean.

HERRITAR SAREAK ERE BORROKAN

Aldiz, harresietatik eta politika instituzional eskasetatik urrun, aferari erantzun txalogarria eman diote herritar sareek. Gurera iristen diren migratzaileei, karitatetik harago elkartasuna eta babesa eskaini diete, eta harrera duina eta integrala aldarrikatzeko borrokara batu dira. Horiek dira, adibidez, "Euskal Herria, harrera herria" manifestua atera dutenak, Euskal Herriak etorri direnei besoak beti zabaltu dizkiela gogoratuz; horiek dira datorren urtarrilaren 26an Irunen manifestazioa egingo dutenak, trantsitoan diren pertsonen elkartasuna adierazteko; eta horiek dira maiatzaren 5ean Europako hainbat hiri eta herritan mobilizatuko direnak, giza eskubideen defentsan. "Munduko pertsona guztien bizileku-eskubidea eta zirkulazio askea" eskatuko dute, inor ez baita ilegala, edo inork ez bailuke ilegal izan beharko, zer eta leku jakin batean eta ez bestean jaio delako. ●